



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – UDAZKENA

Udazkena hezea izan zen, oso hezea kostaldeko eskualdeetan, eta batez besteko tenperatura oso beroa (1991-2020 ohiko aldiaren gainera 0.8 °C).

Udazkenean 36 abisu hori igorri ziren, nahikoa gutxi iazkoekin alderatuz gero (75). Hala ere, lurraldean inpaktua izan zuten 5 alerta laranja gehitu behar zaizkio.

Hauetako hiru alerta urrian igorri ziren, alde batetik, “Kirk” urakanak eragindako depresio sakon batek hilaren 8an eta 9an Kantauritik igarotzerakoan sortutako haize zakarrari loturikoak. Bestetik, hilaren 16ko gautik aurrera eta hilaren 17an prezipitazio handia eta iraunkorra egin zuen, eta Urola, Oria eta Bidasoa arroetako ibaiek gainezka egin zuten. Horrez gain, eurite horiek marea astronomiko oso biziarekin batera gertatu ziren, eta itsasgoren inguruan gainezkatzeak izan ziren.

Beste biak azaroaren 24an igorri ziren, “Bert” depresioak (Irlandako meteorologia zerbitzuak izendatuta) eragindako haizeagatik. Horren aurretik, inpaktu handiko beste depresio bat igaro zen, “Caetano”, eta haize, euri eta itsaso zakarreko beste denborale bat eragin zuen.

Prezipitazioa

Udazkenean pilatutako euriaren arabera, urtaro hau hezea izan zen, kostaldeko eskualdeetan oso hezea, 1991-2020 ohiko denboraldia kontuan izanik. Lurralde osoa dago ohiko batezbestekotik gora, isurialdeen banalerroko mendi inguruak izan ezik. Mende hasieratik, kantitate horiek gutxi gorabehera zortzigarren postuan daude, handienetik txikienera ordenatuta.

Euri eremuen arabera, balio altuenak Gipuzkoa ipar-ekialdean daude, baina tarte zabal batekin, 500-900 mm artekoa (Eskas 905.3 mm, Oiartzun 746.4 mm, Añarbe 733.1 mm, Miramon 729.8 mm, Ereñozu 670.1 mm, Lasarte 605.8 mm). Kostaldeko gainerako eskualdeetan daude maximo sekundarioak, bereziki Gernika-Bermeon (Matxitxako 577.5 mm, Almike 565.3 mm, Aizarnazabal 526.7 mm, Arteaga 512.1 mm) eta Enkarterrin (Cueto 540.1 mm, Jarralta 515 mm). Hegoaldera joz gero, pilatutako kantitateak azkar urritzen dira, eta Araba hegoaldean jaso ziren balio baxuenak (Moreda 137.5 mm, Nanclares 151.2 mm, Páganos 155.5 mm, Zambrana 168.1 mm, Subijana 181.1 mm).

Prezipitazioaren bilakaera hiruhilekoan ez zen guztiz uniformea izan. Iraila oso hezea izan zen, nahiz eta Arabako Lautadan eta Añanan ohikoa izan. Urria ere oso hezea izan zen, zehazki euritsuenetako bat (erabat hezea Añana hegoaldean, Arabako Lautadaren ekialdean eta kostaldeko zenbait tokitan). Azaroak joera eten egin zuen, lehorra izan baitzen oro har.



Euri-egunak udazkeneko batez besteko klimatologikoa baino gehiago izan ziren (Abusu 32, Derio 39, Lasarte 38, Miramon 35, Arkauti 25, Abetxuko 26 días), eta azaroa izan zen ekarpen gutxien egin zuen hilabetea.

Irailean prezipitazioa ondo banatu zen, zaparrada trumoitsu ugari izan arren. Azpimarratzekoak dira, hilaren 2ko arratsaldeko ekaitzak, orduan Araba hegoaldean zaparrada trumoitsu oso handiak bota zituen (Navarrete 41.6 mm/h, bere serie osoaren errekorra). Hilaren 21ean, arratsaldean, zaparrada handiak bota zituen mendebaldean (Jarralta 24.2 mm/h, Gardea 22.7 mm/h, Mungia 21.1 mm/h, Galindo 19.6 mm/h, Derio 16.5 mm/h, Almike 16.5 mm/h, Arteaga 16.4 mm/h), ordubetea pilatutako prezipitazioaren iraileko errekorrak izan ziren bereziki Bilbo Handiko estazioetan. Horrez gain, hilaren 20an, Orduntek bere urteko seriearen marka hautsi zuen (21.5 mm/h).

Urriko pare bat egunetan zaparraden intentsitatea eta pilatutako euri kantitateak ezohikoak izan ziren. Hilaren 16an zaparrada trumoitsu handiak eta oso handiak bota zituen Gipuzkoa eta Araba ekialdean (Ilarduia 35.9 mm/h, Amundarain 31 mm/h, Iturrieta 30.4 mm/h, Alegia 29.4 mm/h), eta egunaren bukaeran kantitate esanguratsuak jaso ziren Goierri eta EAEren ekialdeko beste toki batzuetan ere (Alegia 73.6 mm, Amundarain 71.1 mm, Ordizia 58.4 mm, Araxes 56.3 mm, Iturrieta 50.7 mm, Zizurkil 50.3 mm). Hurrengo egunean, hilaren 17an, euria egiten jarraitu zuen, eta Gipuzkoa ipar-ekialdean 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 112.1 mm, Miramon 88.2 mm, Añarbe 84.4 mm, Oiartzun 83.2 mm, Ereñozu 80.3 mm, Andoain 71.4 mm, Lasarte 63 mm, Aizarnazabal 61.6 mm). Urola, Oria eta Bidasoako arroetan ibaien maila azkar igo zen, arratsaldean maila horian egon ziren, Jaizubian gorrian ere, eta egoera horrek gorabehera batzuk eragin zituen. Azpimarragarria da prezipitazio hauekin batera marea astronomiko oso biziak gertatu zirela, ondorioz, itsasgoren inguruan gainezkatzeak izan ziren. Gauzak horrela, arratsaldeko itsasgoran zenbait arazo egon ziren, adibidez Erandion eta Zorrotzaurren itsasadarrak gainezka egin zuen eta Donostiako Foru plaza urak hartu zuen; beste gorabehera batzuk ere izan ziren Zumaian, Errenterian, Orion eta Irunen esaterako. Bi egun horietako eguneko, ordubeteko eta 10 minutuko erregistroak urriko errekorrak izan ziren.

Azaroa, lehorra izan arren, gertaera esanguratsuak ere izan zituen. Oro har, hilabetea normalean pilatzen denaren %50 baino gehiago hilaren 20tik 22rako gertaeran jaso zen. Hilaren 20an, ipar-mendebaldeko adbezio indartsuak kostaldeko eskualdeetan euri kantitate oso ugariak utzi zituen, eta zenbait tokitan 60 mm-ra iritsi ziren (Eskas 75.7 mm, Oiartzun 75.4 mm, Behobia 69.5 mm, Almike 60.3 mm, Miramon 52.5 mm, Berriatua 48 mm, Mallabia 47.8 mm). Ondorioz, ibaien maila azkar igo zen eta Jaizubia maila laranja iritsi zen arratsaldean.

**1 Taula. Azken urteetan udazkenean pilatutako prezipitazioa Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2024	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015
Zorrotza	363.5	321.3	265.5	513.1	303	471.3	235.3	287.8	286.2	324.7
Lasarte	605.8	452.8	461.3	587.3	369.5	623	341.6	453.3	439.5	276.4
Arrasate	365.8	371.2	263.6	395.9	250.7	555.9	280.6	271.3	284.9	307.5
Abetxuko	196.2	251.7	130.8	247	178.2	291	168	126	171.4	147.2
Párganos	185.8	60	192.8	101.5	213.4	144.5	50.7	99.5	132	191.9

Temperatura

Batez besteko temperatura kontuan izanik, udazkena oso beroa izan zen, 1991-2020 periodo normalaren arabera. Kostaldean batez besteko temperatura 16-17 °C artekoa izan zen, Kantauriko bailaretan 15 °C ingurukoa eta Arabako Lautadan 13 °C ingurukoa. Lurralde osoa kontuan hartuta, batez besteko temperatura ohikoa dena baino 0.8 °C altuagoa izan zen. Mende honetan, orain arte neurtutakoarekin alderatuz gero, seigarren udazkenik beroena izan zen, hori bai, seriearen buru diren 2023ko eta 2006ko udazkenak baino 2 °C baxuagoa.

Hiruhilekoan zehar, irail hotz batetik urri bero batera igaro ginen eta azaro oso bero batekin bukatu genuen. Nabarmenezkoa da irailean hautsi egin zela azken urteetako joera; izan ere, 2011. urteaz geroztik, beste bik bakarrik izan dute anomalia negatiboa (2015 eta 2017). Gainera, gogora dezagun iazko iraila erabat beroa izan zela, 3 °C-ko anomalia positiboarekin. Urrian, temperatura minimoek izan zuten eraginik handiena anomalia positiboan, ez hainbeste maximoek, ohikoagoak izan baitziren. Nolanahi ere, portaera desberdin horren ondorioz, urriko batez besteko temperatura kostaldean antzekoa edo hamarren batzuk altuagoa izan zen eta hori ez da oso ohikoa.

Temperatura maximoak 30 °C azpitik mantendu ziren eta ez zen abisu horirik igorri beroagatik. 2023ko irailarekin zerikusirik ez, izan ere orduan hilaren 4tik 9ra bitartean temperatura maximoak oso altuak izan ziren, erabat ezohikoak, Kantauri bailaretako zenbait lekutan 35 °C ingurukoak.

Egun beroei dagokienez, haietako bat ere ez zen izan aipagarria eta zona bakoitzeko maximoak egun ezberdinetan neurtu ziren Mediterraneo isurialdean irailaren 1ean (Zambrana 28.4 °C, Etura 27.3 °C) eta 2an (Kanpezu 28.1 °C, Moreda 28 °C) neurtu ziren. Kantauriko bailaretan irailaren 19an neurtu ziren temperatura maximo altuenak (Sodupe-Cadagua 28.6 °C, Oiartzun 28.3 °C, Belauntza 28 °C, Gardea 27.7 °C, Zizurkil 27.5 °C). Kostaldean irailaren 25a izan zen egunik beroena, hego-haize indartsuak sortutako Föhn efektuaren laguntzaz (Oleta 29.6 °C, Galindo 28.7 °C, Arteaga 28.6 °C, Sodupe-Cadagua 28.6 °C, Elorrio 28.5 °C, Mungia 28.5 °C).

Irailaren 14an Mediterraneo isurialdeko temperatura minimoak 5 °C-tik beherakoak izan ziren, mendiko estazio batzuetan izan ezik, eta zenbait lekutan izotza egin zuen (Iturrieta -0.3 °C, Pagoeta -0.2 °C), udazkeneko lehenengo

izoztea. Arabako Mendialdean kokatutako Iturrieta (mendiko bailara batean) eta Pagoeta (kubeta batean) estazioetan izandako izozteak haien serie historikoko goiztiarrenak izan ziren.

Azarora arte ez zuen izotzik egin. Azaroaren 12an eta 13an Herreran izotza egin zuen, 1188 metrora. Azaroaren 13a udazkeneko egunik hotzena izan zen, kostaldean 10 °C-tik azpiko batez besteko temperaturarekin; Arabako Lautadan batez besteko temperatura 5 °C ingurukoa izan zen egun horretan.

Tenperatura minimo hotzenak azaroaren 25etik aurrera neurtu ziren, inbertsio termikoagatik. Zerua gero eta garbiago egon zen eta goizean Arabako herri batzuetan izotz txikia egin zuen lehenengo aldiz (Iturrieta -2.7 °C, Subijana -1.4 °C, Navarrete -1.3 °C, Kanpezu -1.2 °C, Antoñana -1, Salvatierra -0.5 °C).

Tenperatura minimo altuenei dagokienez, urriaren erdialdean tenperatura ohikoa dena baino askoz altuagoa izan zen gauean. Hilaren 12an eta 15ean kostaldean tropikala izan zen goizaldea, baita azaroaren 25ean ere.

Bukatzeko, intsolazioa ohikoa dena baino txikiagoa izan zen, Bizkaiko kostaldean izan ezik; han altuagoa izan zen. Hiriburuetan eguzki-orduak 400 ingurukoak izan ziren.

Taula 2: Udazkenean, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2024	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015
Zorrotza	17.1	18.6	18.7	15.9	16.4	16.3	16.4	15.4	16.5	16.9
Lasarte	15.7	17.2	16.9	14.6	15.4	15	15.3	14.3	14.9	15.2
Arrasate	14.6	16.5	16.2	13.6	14	13.5	14.1	12.9	13.6	13.4
Abetxuko	12.8	15.1	14.1	11.7	12	12.6	13	11.7	12.5	12.2
Páganos	13.8	16	15.4	13.1	13.1	13.2	13.3	13.2	13.7	12.9


Udazkeneko oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: Udazkeneko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min. °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max. l/m ²	Euri- egunak.
Zorrotza	17.1	21.2	28.6	13.7	7.2	0	363.5	30.3	32
Lasarte	15.7	20.4	28.4	12.1	5.0	0	605.8	63.0	38
Arrasate	14.6	20.1	28.0	10.5	2.8	0	365.8	41.5	34
Abetxuko	12.8	18.2	25.6	8.2	0.6	0	196.2	26	26
Páganos	13.8	18.3	27.3	10.0	2.2	0	155.5	22.4	22




Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak





Prezipitazioaren jokaera





Muturreko egoerak

Udazkenean 36 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 5 prezipitazio handiagatik, 3 prezipitazio iraunkorragatik, 8 haizeagatik haizeguneetan, 5 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan, 8 nabigaziorako lehenengo bi milietan, 6 kostaldean inpaktuagatik eta 1 baso-sute arriskuagatik.

Horrez gain, 5 alerta laranja igorri ziren, 1 prezipitazio iraunkorragatik, 2 haizeagatik haizeguneetan eta 2 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan.

Ondoren gertaera esanguratsuenen sorta aurkezten da:

Iraila

- Aitor* depresioaren gertutasunaren ondorioz, hego-osagaiko haizea nabarmen zakartu zen hilaren 25ean eta haize-bolada oso gogorrak izan ziren goizean goiz ipar-mendebaldeko mendi inguruetan. Arratsaldean, hego-osagaiko haize-boladak zakartu egin ziren eta haizeguneak ez diren tokiak ere eragin zituzten. Arratsaldean hego-mendebaldeko ufadak Orduña-ko estazioan 130 km/h ingurukoak izan ziren, eta Saratxon 90 km/h-tik gorakoa neurtu zen. Esanguratsuak ere dira Gasteizeko eta Zorrotzako (Bilbao) haize-boladak, 80 km/h-tik gorakoak izan baitziren. Haize zakarrak kalte ugari eragin zituen, bereziki zuhaitzak eta elementu mugikorrek erortzearekin loturikoak. Hilaren 26ko goizaldean haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin zuen kostaldean eta bertan indarra galdu zuen, baina barnealdean oraindik indartsu ibili zen, bereziki haizeguneak ez diren tokietan, bertan 90 km/h-ren muga gainditu zen berriro (Gasteiz 90.7 km/h).

Haizegunea	Haize-bolada, hilak 25 (km/h)	Ordua UTC
Orduña	129.8	17:40
Matxixako	125.6	21:00
Punta Galea	122.1	21:00
Cerroja	111.5	15:40

Haizegunea ez den estazioa	Haize-bolada, hilak 25 (km/h)	Ordua UTC
Saratxo	90.7	16:20
Gasteiz	85.4	20:10
Zorrotza	84.0	16:40
Tobillas	82.9	22:00

Haizegunea	Haize-bolada, hilak 26 (km/h)	Ordua UTC
Zaldiaran	109.0	03:50
Cerroja	105.1	04:10
Herrera	105.1	04:00
Orduña	104.8	04:20



Haizegunea ez den estazioa	Haize-bolada, hilak 26 (km/h)	Ordua UTC
Gasteiz	90.7	04:10
Tobillas	85.7	03:00
Ordizia	85.4	04:20
Ilarduia	82.9	04:10

Asteazkena, hilak 25: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 18etatik 24etara ordu lokala.
Osteguna, hilak 26: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 10etara ordu lokala.
Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 00etatik 10etara ordu lokala.

Urria

- Kantauri itsasotik depresio bat igaro zen eta hego-mendebaldeko haize-denborale zakarra eragin zuen EAEn hilaren 8ko azken orduetan eta hilaren 9an. Hilaren 8an, azken orduetan, haize-bolada bortitz batzuk neurtu ziren ipar-mendebaldeko haizeguneetan, baina ufada gogorrenak hilaren 9ko lehen zatian eta arratsaldeko lehen orduetan neurtu ziren, 150 km/h-tik gorako ufadekin haizeguneetan eta 100 km/h-tik gorakoekin haizeguneak ez diren tokietan. Arratsaldean, depresioari loturiko fronte hotz batek lurraldea zeharkatu zuen eta haizeak ipar-mendebaldera egin zuen kostaldean. Frontea igaro ostean, tenperatura bat batean jaitsi zen, zaparrada batzuk egin zituen, eta oraindik haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren arren, oro har, haizeak indarra galdu zuen. Egunaren bukaeran, depresioa Frantzian kokatuta, haizea nabarmen ahuldu zen eta haize-boladak atalaseetatik behera egon ziren. Haizetearen ondorioz, 768 intzidentzia jaso ziren Sos Deiak-en, horietako 487 Bizkain eta gehienak Bilbon. Horrez gain, trafikoan arazo ugari izan ziren, istripuak izan ziren haize zakarrak eraginda eta zuhaitzak erortzearen ondorioz errepideak itxi behar izan zituzten. Zenbait herritan argi-mozketak izan ziren (Karrantzan, Barakaldon, Artziniegan edo Hernanin). Loiuko aireportuan haizeak 60 hegaldi baino gehiago eragin zituen eta ia 1000 erabiltzaile, azken 10 urteetako kolapso handiena izan zen. Bilboko metroko zerbitzuan eta trenbide sarean ere kalteak izan ziren.

Haizegunea	Haize-bolada, hilak 8 (km/h)	Ordua UTC
Orduña	133.3	21:20
Punta Galea	121	23:20
Cerroja	121	21:50
La Garbea	114.7	22:00
Arboleda	113.9	22:00
Matxitxako	111.1	23:40

Haizegunea	Haize-bolada, hilak 9 (km/h)	Ordua UTC
Orduña	190.5	10:30
Punta Galea	162.3	11:10
Untzueta	155.6	11:10
Zaldiaran	153.8	12:10
La Garbea	149.9	10:40



Matxitxako	146.1	12:00
Cerroja	142.2	11:50
Zarautz	129.8	11:55
Kapildui	115.4	13:10
Santa Clara	110.1	12:10

Haizegunea ez den estazioa	Haize-bolada, hilak 9 (km/h)	Ordua UTC
Nanclares	117.1	11:30
Saratxo	114.7	01:50
Gasteiz	113.9	12:10
Arrasate	113.6	12:20
Mallabia	110.4	11:30
Zambrana	103.7	10:40
Igorre	101.6	12:40
Derio	89.6	10:00
Iurreta	89.2	11:40
Zorrotza	88.6	09:00

Asteartea, hilak 8: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Bizkaian eta Araban 21etatik 24etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 9: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 00etatik 21etara ordu lokala. Alerta Laranja haizeagatik haizeguneetan Bizkaian 06etatik 18etara ordu lokala. Alerta Laranja haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Bizkaian 06etatik 18etara ordu lokala. Alerta Laranja haizeagatik haizeguneetan Gipuzkoan eta iragaite-zonan 12etatik 18etara ordu lokala. Alerta Laranja haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Gipuzkoan eta iragaite-zonan 12etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 16ko arratsalde-gauean, zaparrada handiak izan ziren EAE osoan, eta bereziki mardulak izan ziren Gipuzkoa eta Araba ekialdean, bertan hamar minutuan 10 mm baino gehiago pilatu ziren eta ordubeteen 20 mm baino gehiago. Prezipitazio guzti horren ondorioz, Oria arroko zenbait estazio maila horira iritsi ziren (Alegia eta Amundarain) puntualki egunaren azken orduetan. Hilaren 17an prezipitazioa estratiformea eta iraunkorra izan zen. Goizean 30 mm baino gehiago pilatu ziren Kantauri isurialdean, eta Gipuzkoa ipar-ekialdeko zenbait tokitan 50 mm-ak gainditu ziren. Arratsaldean Bizkaian, Araban eta Gipuzkoa mendebaldean atertzera egin zuen, baina Gipuzkoa ekialdean euria sarri egiten jarraitu zuen. Egunaren bukaeran 80 mm baino gehiago pilatu ziren bertan, Eskasen 100 mm-ak ere gainditu ziren. Pilatutako prezipitazioaren ondorioz, Urolako, Oriako eta Bidasoako arroetako ur-emariak maila horira iritsi ziren arratsaldean, eta Jaizubian maila gorria gainditu zen. Gauean ur-emariak gutxitu egin ziren eta maila berdean kokatu ziren guztiak. Euriaren ondorioz, Gipuzkoan aparteko gorabeherak izan ziren, urak zenbait lokal hartu zituen eta kotxe batzuk harrapatuta geratu ziren edo hondatu egin ziren. Zumaiako osasun zentroan kalte material garrantzitsuak izan ziren.

Estazioa	Euria, hilak 16 (mm/10 min.)
Alegia	11.5
Araxes	11.7
Ilarduia	14.6
Iturrieta	9.9
Ordizia	10.2
Saratxo	9.4
Zegama	11.7

Estazioa	Euria, hilak 16 (mm/h)
Alegia	29.4
Agauntza	23.3
Amundarain	31.0
Araxes	21.2
Ilarduia	35.9
Iturrieta	30.4
Ordizia	23.4
Salvatierra	23.5
Zegama	22.5

Estazioa	Euria, hilak 17 (mm)
Eskas	112.1
Miramon	88.2
Añarbe	84.4
Oiartzun	83.2
Ereñozu	80.3
Andoain	71.4
Lasarte	63
Andoain	61.6

Osteguna, hilak 17: Alerta Laranja prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoa ipar-ekialdean 13etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 00etatik 24etara ordu lokala.

Azaroa

- Hilaren 22ko bigarren zatian eta hilaren 23ko lehen orduetan depresio bat azkar sakondu zen Atlantikoan eta Britainiar uharteen ipar-mendebaldean kokatu zen, presio baxuen eremua Bizkaiko golkotik zabalduz. Egoera honek hego-osagaiko haize denboralea eragin zuen eta hilaren 23ko goizetik aurrera nabaritu zen. Egun hartako erdiko orduetan hego-osagaiko haize-boladak 100 km/h-tik gorakoak izan ziren ipar-mendebaldeko haizeguneetan, eta Matxitxakon bortitzak izan ziren. Ipar-mendebaldeko haizeguneak ez diren tokietan haize-boladak 80-90 km/h ingurukoak izan ziren. Arratsalde-gauean haizea beste toki batzuetan ere zakartu zen eta Jaizkibelen 100 km/h-tik gorako ufada neurtu zen azken orduetan, eta Zizurkilen 80 km/h-tik gorakoak. Hilaren 24an, haizea indartsu ibili zen egunaren ordurik



gehienetan, ufada bortitzekin haizeguneetan eta 100 km/h-tik gorakoekin Kantauri isurialdeko haizeguneak ez diren tokietan. Haize zakarrak komunikazio bideetan mozketak eragin zituen eta kanpoko jarduerak bertan behera geratu ziren, eskola-kirola edo Donostiako maratoia adibidez. Hilaren 25eko goizaldean oraindik haizea indartsu ibili zen eta gertaeraren eta hilabetearen ufadarik gogorrena neurtu zen (Orduña, 149.9 km/h). Egunak aurrera egin ahala presio baxuak lurraldetik urruntzen joan ziren eta haizeak azkar galdu zuen indarra, izan ere, egunaren bigarren zatian ahul ibili zen. Hegoaldeko haizearen intentsitatearen ondorioz, hilaren 24an baso-sute arriskua altua izan zen Kantauri isurialdean.

Haizegunea	Haize-bolada, hilak 23 (km/h)	Ordua UTC
Matxitxako	128.8	12:00
Oiz	109	11:20
Zarautz	107.6	11:00
Punta Galea	106.2	12:00
Arboleda	103.7	10:40
Jaizkibel	103	23:50
Cerroja	102.3	11:10

Haizegunea ez den estazioa	Haize-bolada, hilak 23 (km/h)	Ordua UTC
Gardea	93.5	21:50
Zorrotza	87.2	14:20
Zizurkil	81.9	23:00

Haizegunea	Haize-bolada, hilak 24 (km/h)	Ordua UTC
Zarautz	132.7	08:10
Jaizkibel	130.9	10:50
Orduña	128.1	20:50
Oiz	124.2	06:50
Roitegi	122.4	13:30
Matxitxako	121	05:30

Haizegunea ez den estazioa	Haize-bolada, hilak 24 (km/h)	Ordua UTC
Zizurkil	126	09:40
Bidania	104.1	21:00
Igorre	103	09:00

Haizegunea	Haize-bolada, hilak 25 (km/h)	Ordua UTC
Orduña	149.9	02:40
Jaizkibel	126.3	03:30
Cerroja	118.5	02:30
Punta Galea	115.4	03:00
Oiz	112.9	01:40
La Garbea	112.5	02:20



Haizegunea ez den estazioa	Haize-bolada, hilak 25 (km/h)	Ordua UTC
Ilarduia	104.8	00:30
Ordizia	100.2	00:30
Bidania	96.3	03:40
Arrasate	91.7	00:50
Zegama	90	03:30

Larunbata, hilak 23: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Kantauri isurialdean 12etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Gipuzkoan 20etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 24: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 00etatik 24etara ordu lokala. Alerta Laranja haizeagatik haizeguneetan Kantauri isurialdean 06etatik 15etara ordu lokala. Alerta Laranja haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Gipuzkoan 06etatik 15etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 06etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 25: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 06etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 00etatik 06etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: urtaroko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen urtaroko batezbestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* urtaroko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen urtaroko batezbestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* urtaroko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* urtarotan, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* urtarotan pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* urtarotan, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* urtarotan, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <https://www.euskalmet.euskadi.eus/dibulgazioa/estilo-gidaliburua/>

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.